

BRUMA NEGRA

LANBRO BELTZA

Plentzia Beltza

Calibre .38

**LANBRO BELTZA  
VIII. NAZIOARTEKO  
IPUIN LEHIAKETA**

Plentziako Udalak antolatutako Lanbro Beltza VIII. Nazioarteko Ipuin Lehiaketako euskarazko modalitatearen epaileek, hau da, Aritza Bergara eta Joseba Lozano jaunek, epaimahaiburua Noemí Pastor andrea izan delarik, hauxe erabaki dute: Lehenik, aurtengo sariaren irabazlea Gotzon Plaza Jaio dela, “Metro eta erdira” ipuinagatik. Bigarrenik, finalistak hauexek direla:

Lehen finalista, Javier Díez Carmona, “Azken hegalaldia” ipuinagatik.  
Bigarren finalista, Mari Joxe Azurtza Sorrondegi, “Tenis klubean” ipuinagatik.  
Eta hirugarrena, Oskar Azkona García, “Desagerpena Bilbon” ipuinagatik.

Plentzian, 2020ko uztailaren 6an

Zer non

<i>Metro eta erdira</i> , Gotzon Plaza Jaio	4
<i>Azken hegalaldia</i> , Javier Díez Carmona	20
<i>Tenis klubean</i> , Mari Joxe Azurtza Sorrondegi	32
<i>Desagerpena Bilbon</i> , Oskar Azkona García	45

# Metro eta erdira

Gotzon Plaza Jaio

GAUZAK ez dira berez gertatzen. Ni, hemen, kafetegi honetako leiho parean izatea ez da bat-bateko kontua eta, are gutxiago, ezin genezake esan soilik instant honetan gertatutako une isolatua denik. Kateaturik ditugun bizitzako mugimendu oroak, bata bestearen gibelean, mahai edo lehio hauetaraino ilaratzen dira-eta. Kafea hartu dut eta lehenago eskatu behar izan dut. Aurretiaz, zerbitzarearen pausoak entzun dira eta pausoak baino lehenago, zerbitzuko gizonaren giharrek mugiarazteko burmuinaren agindua izan dute. Beti jo dezakegu aurreko elemendu batetara, amaiezineko haría balitz legez. Eta lehenago gertaerek gaurko egunean direnak ondorioztatzen dituzte.

Fatalismoa deitzen diote lagun izena ezkututzen didaten horiek. Ez dut gogoko izen hori, ez dut gogoko exijitzen duen konpromisoagatik, ez dut gogoko elkarren sekretuak partekatuak balira bezala hitz egiteko ausardiak

bultzatzen dituelako. Beraz, ez dut “lagun” izena merezi duen inor, eta, arrazoi beragatik, ez nau inork ezizen horretaz deitu, ez naiz hausnarketa antzuetan galduko. Ez nago hemen horretarako.

Bakartia naiz, oasietan diren palmonden antzera. Edo, bestela esanez gero, basamortuan den ur putzu bakana bezain isolatua. Ez dut nire burua poetikaren faltsukerietan murgildu nahi, baina irudi zinez egiazkoak direla uste dut. Soberakoa dut nire buruarekin eta ez dut eskatzen inoren konpainiarik, inoren birikien hauspo-hatsik. Beharbada, nire pentsamenduek hazkunderako toki gehiago izango dutelako edo antzerako mozolokeria esan dezaket. Besoak luzaturik nire inguruan dagoen espazioa neurea soilik dela adierazteko-edo. Zergatiak ez du inporta, nortasunak oinarrian dituen funtsak baino.

Batzuk ez omen dute patua existitzen denik sinesten. Norberaren bidean bakoitzak ereitzen omen dituela etorkizunaren etorrerak. Baliteke. Eta alderantzizko iritzia ere ontzat emango nuke, hau da, gure izanak bizkarretik eutsita jarraitzen gaituela eta horri ezin diogula hezirik jarri. Hau ere baliteke. Eta suertatu zaigun xedea osotzean datza soilik gure borondatea. Zori ona ala zori gaitza, bitan banatzen den bide bakarra eta gureak dira batera zein bestera bideratzen diren pausoak. Aukeratu beharrean gaude eta erabakiaren erantzule ez dugu gure itzaletik at bilatu behar.

Zein ote da biolentziaren oinarria? Kausak dira iturri, kausak dira egile. Ba al dago inor horietaz libre? Batek daki eta batek ez daki, jaso eta berrindarturik itzulita sortzen dugu-eta. Baina ez, arazoa ez da indarkeria-sorkuntzaren misterioa, ez; arazoa zera da, nola transmititu zaigun zeluletako oroitzenetan, odol-tanta biribilduetan edo gihar luzatu

zabaletan. Eta indar hori gobernatzeko dugun borondatea, kausa guztien azken kausa. Gizaki indartsuaren borondatea.

TAXIA beste auto zuriek osotu duten ilararen azkeneko tokian gelditu da. Hiriko plaza ezagunean trafikoak ez du amaitzerik, metalezko ibai bizia dirudi garraioenak, haragizko ibaia espaloitik direnei dagokiona legez. Baina labezorromoen antzera burua jaitsita eta begirada aurreko lausetan iltzatuta, inork ez du burua altxatzerik inguruko unibertsoa ikusteko. Edo burua jaso arren, ez dira mundua behatzeko gai, bakoitzaren patua edo norabidea osotasunean ulertzeko. Lar arazo norberaren barnean besteenei kasu egiteko. Oinetakoak, mota ugarikoak, presaka igarotzen dira taxiaren albotik.

Auto zuri berritik bikote dotorea jaitsi da. Atzealdeko eserlekuetatik gizona atera da, segundu eskas batzuk geroxeago emakumea. Bizkarrera begiatu gabe, biak parekaturik, pausu seguruak eman dituzte espaloian eta hogeit hamar metro irekirik diren hotel izetetsuaren zur eta kristal landuzko atear mugimendu seguruek zeharkatu arte.

Taxi gidariak atzerako ispilutik behatzen ditu bidaiarien irudiak nola urruntzen diren. Emakumearen ahotsa entzun du eta soilik norabidea adierazteko baino ez. Gizonezkoa mututurik izan da aireportu eta hiriko kaleetan zehar burutu duten ordu erdiko bidaiari. Hitz egin duen emakumeak ordaindu dio, oraingoan isilean, bankutik atera berria zen berrogeita hamarrekko billeteaz eta kanbioak esku-larru beltzez jantzirik eskuan jaso ondoren, isilean kanporatu dira inolako adiorik edo agurrik gabe.

Kaleko asfalto bustiak kolore gristua eman dio neguko arrastari eta euri

tantek ortziarena hartu dute zoruan lehertu arteko bidaian. Oinen mugimendu azkarrek laster baino arinago eraman dituzte bikotekideak hoteleko sarreraraino. Galazko uniformeaz apaindurik den atezainak adeitasunezko buru-agurra egin die eta kristalezko atea ireki.

Emakumeak, jake beltza eta praka ilunak, inoiz bukatzen ez diren takoidun zapata gainetik harro begiratzen du. Praka eta jake parekatuak, gainetik modazko berokia botoi doratuduna eta gerrian lokarri zabalarekin, baina taxiaren barnean askaturik eraman duena. Esku-larru beltzak daramatza. Ezkerreko eskutik zintzilik besoaren luzapena balitz legez maletin edo portafolio beltza, zapatak eta arropak bezain kalitatezkoa. Ohiturik da halako jantzieta, eroso sentitzen dela nabari da eta ez zukeela bestelakorik aukeratu izango.

Aske duen eskuaren eskumuturrean urrezko pultserek distira egiten dute eta jakearen iluntasunak emakumearen larruaren zuritasuna nabarmentzen du. Masailetan emana du kolorete arrosatua, benetazko arrosatasun ezaren ordeko. Ezpainak gorriz apaindurik ditu, masaila eta bekoki zuritasunarekin kontrastea pizten duen kolore biziaz. Bekainetako arku ongi definituek begirada zuzena eta begi berde txikikoak biltzen dituzte arrastiko eguraldi hotzean. Ile lisatuak leporaino heltzen zaizkio eta bekokian erdibanaturik dituen matazek simetriaren legeak kunplitzen dituzte tente den buruan.

Lanean manatuak eman eta hauek nola betetzen diren behatzeko ohituta. Arazo larrietan bataitua, negozioetarako entrenatua, hotelaren barnean burutuko dena beste ale bat –inportantea– bezala baieztuko duena. Eskarmentuko emakumea, pausoak ematean duen seguridadeak definituko luke bide luzeak zapaldu dituen emakumea bezala. Kikildu gabe, kuzkurtu

gabe, lanean profesionaltasuna helburutzat duten horietakoa.

Gizonezkoak neguko sasoi heze hotzari dagokion beroki galanta darama eta beroki-barrenetatik jaiotzen zaizkion hankak praka urdin ilunetan sarturik ageri ditu. Zapata distiratsuak, adituren batek italiarrak ote diren esango zukeen eta hala ez izanik, berriak eta garestiak direlakoan amaituko zukeen miaketa. Lepoan zetazko gorbataren Windsor motako korapiloa erakusten du alkandora zuriaren gainetik.

Buru txikia, ia apenas ikusgai den ile zehatz moztua duelako edo zuria eta motza izanagatik larruaren koloreaz nahasten zaiolako. Belarri handiak ditu, ezpain finak edo beharbada estuturik dituelako meheak direla esan liteke. Begiak estalirik ditu eguzkitarako betaurreko ilun markadunak erabiliz, neguko arratsaldeko eguraldi euritsuan eguzki ahularen izpiak ez dira ordea betaurrekoen helburuak eta beraz, begiak ezkutaturik dituela argudiatu liteke.

Emakumea agintari bezala ageri bada, gizona beste ezpal batetakoa litzateke. Enbor berekoa, baina adar ezberdina. Jakinminetan den norbait betaurrekopian ikusteko gai izan balitz, begi azpitan dituen orban ilunduek hontzaren itxura jartzen diotela ondorioztatuko zukeen eta halako ustetan ziharduenak bide egokian jarriko zukeen bere pentsamendua gizonarekiko portaera igarriz.

Basoko gauean isilik ari den hontza. Ilunpetik mamuaren antzera erori den altzairuzko erpeak dituen hegazti mutua. Harrapakaria da eta ez harrapakina.

ESKUAK ditu gizaki batek adarrik preziatuak. Aibilezia horretaz jabetu ginen, espezie bezala, harriak erabiliz hasiera ilun batetan. Eta harriak



kolpekatuz lortu genuen sua eta zibilizazioa. Hor hasi genuen bidea harri-  
kirrien gainean harri puskak esku ahurretan. Harriak urrun botatzeko  
ahalmenean oinarritzen da zibilizazioa, eskuak eta besoak lehen tresna  
bezala, gero lantzak eta arkuak gaur eguneko arma modernoetara  
ailegatzeko. Zer izan dugu beraz zibilizazioa, zer izan dira erreinuak eta  
inperioak, armaz eta indarrez norberaren lurraldeak defendatzea eta  
etsaiarenak konkistatzeko tresnak baino? Besteak –arte, kultura, filosofia,  
erlijioa– bidean diren apaingarriak baino ez ditugu izan, beharbada  
borrokarako indarrek soseguan aurkitu dituzten jarduera xumeak baino ez.  
Borroka-odolez bataiatu ditugu giza historiaren jarduerak.

Eta espazio eta denbora guztietan joera berdina izan dugu: gu eta besteak.  
Bereizketa argi horretan burua zutik mantentzeko adorea izan dugu,  
etsaiak, arerioak, aurkariak eta izutzen gintuzten gure lehiakideak  
hurbiletik zainduz. Bestela esanda, geu ginen besteen lehiakide. Eta  
lehiakideek ez dute inoiz etsiko, borrokan jardungo dute eternitatean edo  
bietako batek amore eman arte, aurkariaren burua makurturik ikusi arte.  
Hor dago giza mugimenduaren azken arrazoia, etsaia geldirik sentitzeko  
apetentzia.

Zer bestela litzateke gure haragi bigunaz? Berriro nator borondatearen  
esparrura. Ez dugu sentitu behar jainkotarren hatsa gure oin biluziak  
mugiarazteko. Horretarako nahikoa izan dugu gure hauskortasunaz  
jabeturik izatea. Beldurra, gure baitan izan den beldurra, izan da gure  
inspirazioa, gure arima. Ezin izango genukeen inolaz iraun beldurrik gabe,  
beldurrak zuhur aritzeko ahalmena eman zigulako, beldurrak erne eta adi  
mantendu gaituelako. Beldurra hezur gabeko animalia basatia, etxekotu  
ezina, domeina ezina bai, baina borroka oroetan aldamenean izan dugun

kide leialik bakarrena. Arriskutik korrika alde egiteko aholkatu digun ahotsa eta etsaiei gugandik urruntzeko xuxurlatu dien izaki bera.

Noiz hasi ginen korrika egiten? Ehizan egin duenak erraz erantzungo lioke galdera eskas honi: ehiztariaren begiradatik urrun ehizatuak korrika estropezuka egiten du eta ehiztaria geldo mantentzen da zelatan. Hor datza ekintzaren oinarria, arrakastaren azken sekretua. Ahulek korrika egiten dute burua galdurik ikusten dutenean, ehiztariak beren oinak tokian irmo mantentzen dituzte ordea.

Ni ez naiz korrikalaria. Beraz, ehiztaria nauzue.

AFRIKAKO eguzkiak ez du gupidarik dozenaka bizkar eta bekokietan jotzen duenean. Gehienak oinutsik, lur beltzean sartzen dituzte oinak txorkatiletaraino aldapa behera edo aldapa gora doazen ilaretan. Haragi eta hezurrezko oinek hots ezagunak sortzen dituzte lur zapalduan, beharbada, fruita helduek zuhaitz-adarretik zoru lehortura erortzean egiten dituzten zapuzketa soinu berberak. Baina hau ez da nekazal soroa meategi kaskarra baino, gizonezkoek behin eta berriro zulotzen duten lur beltzitua baino. Zulo nagusiaren maldetan ireki diren zulo berrien metaketa baino.

Irekerik den meategi erraldoiaren ahoan, arropa zarpailduez diren langileak inurritegiaren inguruan mugitzen diren intsektuak bezala ari dira bakoitzak aginduta dituen lanak betez. Bizkarretan daramatzate lurrari ostutako zama astunak, harriak edo hogeina kilotan neurtzen diren oihal gordineko zakuak. Aldapa neketsua da eta ilarako kideek indarrak neurtzen dituzte oina pausu bakoitzean landatu aurretik. Meategiaren ahotzarretan pikotxez edo esku hutsez errotik atera diren lur zakukadak pilatzen dira.

Gazteenek, apenas ume nerabetuak zamak garraiatzeko balio ez dutenek,

eskuz arakatzen dituzte nagusienek edo indartsuagoek ekarritako zaku beltzetako erraiak. Bahe xumeak erabiliz edo ukimena dela erraminta bakarra, lur beltza eskuko hatzen tartetik pasatzen dute. Bilaketa eroan, derriorrezko bilaketan buruak makur, begiak hatzen artetik erortzen diren lur-sokiletan sarturik.

Soro eta abereak abandonaturik dira eta gerrak dakartzan izu kiratsak guztien buru gainetatik zabaldu dira suteetako ke mortuak bezala. Ur putzuak pozoinduak dira eta etxeko animalien hezurdurek eguzkipean zurizkatzen dihardute. Suteetan erre diren etxolatako errautsak kiribiltzen dira haize boladetan.

Soldaduak edo matxinatuak –nola bereiztu batzuk eta besteak?– herrixketara sartzen dira gauez eta indarrez eramaten dute balio duen edozer. Edo ezer ez badago, gatibuak eramaten dituzte meategietara, gizonak eta gazteak lanerako, neska gazteak eta emakumeak bortxatuak izateko, soldadu edo matxinatuen –ba al dago ezberdintasunik?– plazerrerako. Ez langileek ezta bortxatuek, ez dute baliorik eta erraz konpon litezke suerta daitezken galerak. Eguzkipean herrixkak nonai sakabanaturik daude.

Noizbehinka, lokatzez estalirik den batek harri-kirri zurizkatuaren antzerakoa aurkitzen du. Kristal puska gordina, inolako gardentasunik gabe inolako zaporerik eta usainik gabe, baina urrutiko herrialde zibilizatueta dirutza galantaren truk salduko dena. Besoa jaso eta norbait hurbilduko zaio fruitu preziatua eskuratzeko. Ez zaio inori burutik pasatzen aurkitutako kristal lainotua ezkutatu beharko duenik. Heriotzaren aurreko ekintza burugabekoa baino ez litzateke eta inor ez da hain eroa. Izan direnak orain meategiaren hondakinen artetik sasi-lurperatuak daude.

Zaindarien ez dute oinak lokatzean sartu beharrik, zutik mantentzen dira zigarroak muturretan eta kalashnikov-ak sorbaldetatik zintzilik. Jokatzeko ari den partidako peoi armatuak baino ez dira, beharbada katearen azken aleak baino ez, mahaitik erortzen diren apurren biltzaileak-edo. Baina, halan da guztiz, ez dute zalantzarik izango, ez dute ezer pentsatuko, ez dute ezer sentituko. Eskuak prest dituzte edozein momentutan tiroa egiteko. Eskuak eta gogoak, ehiztarien borondateak balira legez.

HOTELEKO kafetegian den saloi pribatua besaulki handietan eserita daude taxitik aterata direnak. Hoteleko zerbitzari jake zuri eta pajarita beltzdunak ekarri die eskatutako kafea. Bi kikatora jarri ditu marmolezko oinak eta kristal laua duen mahai baxua. Saloi pribatua zerbitzariaren zapaten soinu mortua alfonbra gaineko marrazki geometrikoan baino ez da nabaritzen.

Aire-egokituak epeltasun samurra hedatu du bezeroen egonaldia atseginagoa izan dadin. Kanean den eguraldi hotzak ez du ongi-etorritik hoteleko saloietan eta, errealitate paraleloan balira bezala, taxitik aterata den bikotea mundu propioan sarturik ematen ditu lasaitasun urduriko instant haiek.

Emakumeak sakeleko telefonoa utzi du zerbitzaria hurbildu eta lanean izan den artean. Zerbitzariak zeramikazko aurpegia eta begirada du, mortua balitz eta bezeroen aurrean ez balitz legez. Ongi ikasitako lana burutzen ari da. Ezikusia egin behar du, gorrarena landu behar du, diskrezioren lekuko izatetik ezin du marra gainditu.

Leihoaren kristalean ur tantek lorratz umelak utzi dituzte. Emakumearen takoidun zapatek apenas ukitzen dute saloi pribatuko alfonbra

geometrikoa. Isilik mantentzen duen bisaian ez du ezer ageri, soilik begiek jarraitzen dituzte pajaritadun zerbitzariaren mugimenduak. Agian, zakur zaindariak kanpotarra behatzen duen tankeran. Begirada finkoa, iltzatua, espazioaren jabe denak hurbildu denari luzatzen dion behaketa. Une hartan, zerbitzaria izaki arrotza da saloian, eszenatik kanpo den pertsonaia. Kafearen lurrun beltza atzean utzita zerbitzuko gizonak alde egin du itzalak eguerdiko eguzkipean ezkututzen diren antzera. Emakumeak, orduan bai, sakeleko telefono hartu eta markaketa azkarraren ondoren manatu laburrak eman ditu ahots doinua jaso gabe. Ia ordua da eta zain dira. Hoteleko saloi pribatuan, bai, adostu bezala. Galderaren bat, aginduak gehienak. Zutitu egin da pauso laburrak emanez besaulkitik larregi urrundu gabe.

Gizonezkoak kafe beltz usaintsua zerbitzitzen du zeramikazko kikare egokietan eta aldi berean adi dago emakumearen elkarrizketari. Gorputza atzera botata, beretzat prestatu duen kikarea hartu eta ezpainetara eramandu. Edari beltza dastatu ondoren berriz utzi du mahai gainean eta begirada gortinez hezituri diren leihoetara bideratu du.

Konfiantza osoa du emakumearen gaitasunean, ez da inolako sekreturik ezaguna duten negozio diskretuetako merkataritzako tratu hauetan. Horrexegatik etorri dira biak. Eta beste batzutan bezala, dena aterako da ongi beren interesentzat. Kafe zurrutada berria hartzeko prest dago. Hontza gaueko harrapakari bakartia izan arren, arranoaren laguntza ez letorkio gaizki. Arranoak hobekiago ikusten du egunez-eta.

KALEKO eskolan graduatu nintzen. Garai latzak. Eta ez dago errukirik nire hitzotan ezta ahulen malenkoniarik, denak bait dira garai latzak ezer

ez denean. Gerra osteetan beti gertatu izan ohi den bezala, soldadu ugari itzuli ziren etxera. Beste asko ez ziren itzuli, baina hauek ez zuten zer esanik nire istorioan. Eroriak hilak daude eta hilak, lurperatuta. Hezurrek lurraren koloreak eta usainak hartu dituzte eta haragi zatituak zizareen zilarrezko erretiluetako jaki bihurtu dira.

Halakoxeak dira beti gerrak. Zutik dirautenak irabazle dira, ez dago hilengan pentsatzerik. Zertarako? Inoiz ez dut ezagutu hildakoen espiriturik, hezurrekin batera deseginak-edo izan direlako. Edo zinez ez delako inoiz, ez haragian ezta hezur mortuan, halako mami gabeko hatsik existitu. Bizirik mantentzen zirenak ziren nire ardura eta gerrako espantuez aserik zirenek erakutsi zidaten gaztarotik egin behar nuen ofizioaren trebeziak. Haiengandik ikasi nuen borondate propioa gobernatzen, helburuak markatzen eta helburu hauek lortu harte borondatea tinko eusten. Beste batzuk apetentzi lizunetan domainaturik zuten burua edo ta diruz ase ezinik bide erratua hartuta amildegitik behera erori arte. Ergelak. Ahulak.

Lar gizonduarik izan gabe hasi nintzen besteek ezin zituzten enkarguekin. Eta lanak ederki zegozkidala ohartu nintzen. Ez nintzen, jakina, nire trebeziez jabetu nintzen bakarrena, ez. Ni bezalakoak oso estimatuak zirela jakinarazi zidaten. Ez dut kexarik, beti izan dut nire abileziak erakusteko aukera paregabeak. Eta nire nagusiek ere ezin izan dute nire lanetaz hitz txarrik aipatu, helburu guztiak kunplitu ditut-eta.

Hari luzeak ditu patuak, edo borondateak, komenigarriagoa den hitza erabilten badut. Batzuetan, borondatearen indarrak eramaten gaitu aurrealdera. Besteetan, borondatearen indarrak makurtarazi lehiakide eta etsaiak. Denak du berezko funtsa.

Borondate-borroka litzateke gerrari ekiten dioten guztien azpian dagoen azken kausa. Nahiak halako trikimailuak ditu, halako engainuak. Sarritan, diru-goseak itsutu egiten gaitu edo poterea lortzeko nahiak beste zentzumenak agortu egiten dizkigu. Gure burua trufatuko dugulakoan, salbu mantenduko gaituen beldurra gutxiesten dugu eta gure defentsek huts egiten dute. Bizi-borondateren akats barkaezina.

Ongi neurturik ditut eman beharreko pausoak, ongi ezagutzen ditut hotel honetako saloi, pasabide eta ateen nora eramaten nauten. Gauzak ondo prestaturik izatea gustatzen zait eta ehiztari iaioa bezala non nagoen jakitea oinarrizko lehen araua dela iruditzen zait. Ez dago ezusteentzat tokirik negozio honetan dena kontrolaturik izan behar delako. Agian, ehiztariak ez du bigarren aukerarik izango edo balizko bigarren aukerak arriskutsuagoak bihurtuko zaizkio. Baina ni ez naiz horietakoa.

Hemendik altxatu, zazpi pauso aurrera, eskumaldean ate itxia izango da, hamar ezkerretara; behe-solairuan den saloirik txikerrena, leihoak hezitzeko gortina brodatuak diren bezero diskretoentzako toki aproposa, ez da zaintzako inor izango, ate noblea isilik irekiko dut eskumatara. Buruz dakit zein den saloiaren distribuzioa, mahaiak, besaulkiak eta leihoak, alfonbraren marrazki geometrikoak, baita sabaitik zintzilika den lanpararen forma eta argi neurria. Buruz dakit bakoitzaren jarrera zein izango den.

Eskua poltsikotik atera eta dena bukatuko da hiru segundotan. Beste bi pauso aurrera eta helburua metro eta erdira izango dut.

NEGOZIOA ez da batere eskasa izango. Hogei miloi ez dira egunero halako tratuetan burutzen, nahiz eta diamanteen prezioak gora egin etengabe. Merkatuak gero eta gehiago eskatzen ditu harribitxiok eta

eskaera hauek asetu behar, nola edo hala. Konpetentzia ez da erraza eta sarritan azpi-jokoak suertatzen dira.

Eta arriskua ere hor dago, inor ez da sartuko labirinto honetan sarrera eta irteerako bideak ziurtatu gabe. Lehiakide batzuen ustetan merkatua bereganatzeko egin beharreko lanak ukaezinak baitira. Halaxe da negozio hau, ehiztariak eta ehizatuak.

Emakumea leiho parean dago telefonoa belarrarian oraindik. Agian, kalean jaio den euri tantak begiratzen ditu gizonezkoari bizkarra emanaz. Ez du arazoak sortu diren seinalerik masailletako giharretan ezta ahots doinuan. Beraz, dena dago kontrolpean.

Besaulkian eroso eserita den gizonezkoak kafe kikarea ezpainetatik baztertu du norbait saloi pribatuan sartu dela ohartu denean. Berriz zerbitzaria ote? Besoaren mugimendu automatikoak kikarea kristalezko mahai gainean den platertxoan uztearen zeinua egin du. Apenas ikusi du ezezagunaren besoaren amaieran den pistolaren ahoa eta aho beltz hori nola bere bekokira zuzendurik zen.

Metro eta erdira ezinezkoa huts egitea.

*Gotzon Plaza Jaio gernikarra Bilbon bizi da. Informatikan lizentziatua, ezkontuta dago eta hiru seme-alaba ditu. Software enpresa batean dihardu lanean Bilbon. Poesia eta ipuin lehiaketa askotan parte hartuta Euskal Herri osoan, ugaritan izan da irabazlea, gurean kasu, 2019ko edizioan.*



# Azken hegalaldia

Javier Díez Carmona

Albisteak, egunkarietako orrialdeak, telediarioen berriak eta goizero kronika arrosako jainkosa zaharrek gidatzen dituzten solasaldi adimentsu horiek bete zituen: emakume baten gorputz zatiak Bartzelonako hainbat zaborrontzitan sakabanatuta agertu ziren. Laster ezagutu zen biktimaren identitatea. Baina esan ez zutena, garrantsi haundirik ez baitzuen, Elle Abadie nire agente literarioa izan zela.

Ezin dut esan idazlea naizenik. Baina denbora gehiegi eman dut beti kontaktak inprobisatzen testuliburuaren kontratapan eta bulegoko ordenagailuan. Aintzinean, oraindik literaturaren boterean, eta kolorezko adarbakarretan sinesten nuenean, nobela beltzaren sari txiki bat irabazi nuen. Eta norbait inportantea sentitu nintzen. Orduetik aurrera, gauza berriak idaztearen ordeztu, sare sozialetan auto promozioa egiten, eta ezer balio ez zuten aholkuak saltzen, ematen nituen orduak. Nire bizitzak horrela jarraitu zuen, testu-prozesadorearen aurrean prokrastinatzen eta, gauero, Ravaleko tugurio zikinenak ixten, eleberri baterako argudioak

bilatzeko aitzakiarekin, harik eta gurasoek atea seinalatu zidaten arte. Orduan ulertu nuen berrogei urte inguruan ez nekiela ezer egiten. Ezertxo ere ez. Inork irakurriko ez zituen nobeletarako argudio kriminalen bila kaleetatik galtzea, eta ordenagailu zahar baten aurrean orduak xahutzea. Horrela sortu zen Soler eta Elkartuak, Ikerketa Agentzia. Soler, ni naiz. Elkarturik ez dago. Ezta enplegatutik ere. Daukadan konpainia bakarra, alfonbretako hautsa bezain zaharra den katuarena da. Nire lana, beren ohikeriez aspertuta dauden emazteak espiatzea da, seme-alabak are nazkatuagoak, eta futbito-kantxetan suertatzen diren lan istripuak. Eta ez zen lan txarra. Agentziari esker, ganbara txiki baten hipoteka ordaindu ahal izan nuen. Eta nire artxiboan gordetako dossierrek inspirazio gisa balio didate polizia-kontakizun batzuentzat.

Nire agentearen hilketak ez zidan inolako penarik eragin. Denek dakite Elle gorrotatzen nuela. Gorroto nuen, nire azken eskuizkribua bidali eta bost hilabetera, irakurtzeko lanik ere hartu ez zuela jakin nuenetik.

Ez atera ondorio errezik. Nik ez nuen Elle erail. Isilean ekin nion haren kontrako gorrotoari, larrialdietarako gordetzen dudana Macallan-en erreserba husten nuen bitartean.

Nire agentea desagertu egin zen literatur sari baten galatik irten ondoren, mitifikatuta dauden idazleen egoa handitzeko diseinatutako gala horietako batetik. Elle beti joaten zen sarao hoietara. Dibertigarriagoa da idazle ospetsu edo argitaratzaile dirudunekin elkartzea, eskuizkribuak irakurtzen denbora galtzea baino. Bere gorputz zatiak hiri osotik barreiatu zituenak, bazekien oinez itzuliko zela, bakarrik gauaren magalean eta, ziurrenik, mozkortuta. Bahitu zuenak, ezagutzen zuen.

Beno, egia esan ez dut kea asmatu. Suposatzen dut Mossoek orduak zeramatzatela biktimaren inguruan sudurra sartzen. Agian, ni bezalako idazleen artean ere bilatuko zuten, literatur arloan porrot egin genuenen artean, Ellek lotsarik gabe mesprezatzen gintuenenen artean. Hura, gure gogo guztiaz gorrotatzen ikasi genuenen artean.

Ez nintzela bakarra esan behar dut. Rufo Goya ere bazegoen, bere bizitza tristea best-seller bihurtu nahian zebilen blogari bat. Lucius Maginus goitizenez ezaguna zen tipo bat, urteak zeramatzala Amazonen liburuxka sadomasokista zitalak argitaratzen. Eta, jakina, Alfredo Arnau, nire adizkidea zen galtzaile maitagarria.

Arnaurekin, idazle mingots bihurtutako informatikari mingotsarekin, agentea, editorea eta gorrotoak partekatzen nituen; gorroto etiliko eta gor bat, gure alde apustu egiten ez zuten guztiak gorrotatzen genituen bezalaxe.

Alfredok nolabaiteko ospea lortu zuen Agatha Christie edo Conan Doyleren plagioak Interneten argitaratuz. Baina ospeak ukitu zuen BZ-k Kupula Gardena eleberria argitaratu zionenean. Han, argumentu beltz edo kriminalik ezean, H. P. Lovecraft eta Los Simpson nahastu zituen liburu astun batean. Arrakasta izan zuen. Ulertezina, bai. Absurdoa. Baina arrakastatsua. Carles Fuentesek, gure editoreak, berriro erakutsi zuen best-seller bat sortzeko nahikoa dela hiri erdiko liburu-dendak diruz ureztatzea, eta kazetari eta kritikariak dohainik eramatea eleberrian agertzen diren paraje exotikoetara. Ez da kalitaterik behar, ezta lehengairik ere. Izan ere, mundu guztiak daki BZ Esteban Belem tertuliakidearen eleberri beltzerako jauzia prestatzen ari dela. Hau naska!

Gauaren sabelak teilatuen ganean dantza egiten zuen, gabardinaz eta Sig Sauerrez armaturik etxea utzi nuenean. Turista talde baten tirabirak, eta Via Laietana ziztu bizian zeharkatzen zuten ibilgailu urrien zurrumurrak, ixiltasunarekin nahasten ziren. Nonbaiten, kanpai batek jo zuen, lainoaren azpian itzaltzen zen oihartzuna. Hotz egiten zuen. Eskuak poltsikoetan murgildu, pistola ukitu, eta arinago abiatu nintzen.

BZ argitaletxearen egoitza, Urquinaona plazako dorre beldurgarriaren hamabosgarren solairuan dago. Eskale talde bat lotan ari zen izkina batean, beren txakurren gorputzetan beroa bilatzen. Baieztatu nuen nire presentzia ez zitzaiela axola, eta eraikinera sartu nintzen.

Atea zabalik zegoen.

Botoi batetik bestera jauzika zihoan argiak lagundu ninduen igogailuak argitaletxeko pisura iristeko behar izan zituen segundoak. Gogoratzen hasi nintzen. Arnauk eta biok hilabeteak eman genituen Gotikon zegoen jatetxe kloniko hoietako batean gure penak trukatzeko. Elkarrizketa horiek burura itzuli zitzaizkidan Elleren heriotzaren berri izan nuenean. Arnauren harenganako gorrotoa nirea baino tribalagoa, primitiboagoa zen. Gainera, gizona ez zen oso bizkorra. Bere blogeko kexuekin irakurleak martirizatzen zituen panoli bat besterik ez zen. Munduari bere zorigaitzen errua leporatzeko erabiltzen zituen sare sozialak. Muduari, bai, baina batez ere bere hezurak Bartzelonako zaborontzietatik hedatuta zituen emakumeari, eta Urquinaonako eraikin horretan bulegoa zuen editoreari.

Igogailua zaratarik gabe utzi nuen, eta korridore huts baten iluntasunak hartu ninduen. Argi bakarra argitaletxearen ate azpitik iragazten zen. Fuentes barruan zegoen. Arnau ere bai. Ez nuen dudarik.

Fuentesekin, Arnau bere gorrotoaren klimaxera iristen zen. Egia esan, ez zitzaion arrazoirik falta. Kupula Gardena lanaren arrakastaren ondoren, behartua geratu zen, kontratuz, estilo bereko beste lan bat ematera. Epea amaitzear zegoenean, genero beltza irauliko zuen eleberria bidali zien. Inozo gaixoa! BZk atzera bota zion. Beldurrezko zerbait nahi zuten. Kupularen arrakastari kopiatu nahi zioten lotsarik gabe. Beraz, Arnauk, hilabete bakar batean, itxuragabekeri bat idaztera oldartu behar izan zuen. Badakizue: bular handiko neskak, zerra mekanikoak, eta kartoizko heroiak.

Ondorioak azaldu behar ditut?

Burlak prentsan eta telebistan; mespretxua sare sozialetan eta blog espezializatuetan, salmenten beherakada eta, amaiera saihestezina, isiltasuna. Idazlea egunero laguntzen duen isiltasun hotz horrek: Teklatutik begiak altxatzen dituen bakoitzean; bere agentearen zenbakia markatzen duen bakoitzean; bere editoreari deitzen dion bakoitzean.

Isiltasun hilgarria.

Hilgarria, batez ere, Carles Fuentesentzat, leiho irekiaren ertzean eserita, Urquinaonako zementutik berrogei metrotara.

Azken hegaladirako prest.

Andreuk pistola batekin apuntatzen zion.

Egoera dramatikoa zen, bai, baina kosta egin zitzaidan inork interpretatzen jakingo ez zukeen irifarre bati eustea.

— Alfredo, kapullo, askatu katxarro hori eta eman buelta tontakeriarik gabe.

Astiro, automata bat bezala, jiratu eta begirada huts bat bota zidan. Haren begietan distira berezi bat ikustea iruditu zitzaidan. Arraroa bada ere, poza zela pentsatu nuen. Bai. Nire Sig Sauer, krimen zentzugabe hori ez egiteko behar zuen aitzakia bailitzan.

— Soler. Zertan ari zara hemen? Nola aurkitu nauzu?

Fuentes leihoan zegoen, heriotzaren parean, baina nik irribarre egin nuen. Nobelarik onenean bezala, hilketa saihestera eramán ninduten ikerketak azaltzeko unea zen. Baina irribarreak gutxi iraun zidan.

- Ez izan tentela. Arrapatzea nahi ez bazenu, zergatik argitaratu zenuen Azken Hegalaldia?

Bai, noski. Nireak ez zuen meritu handirik.

Kontua da Arnauri buruzko susmoak izan bezain laster, bere blogean sartu eta Azken Hegalaldia ipuin kaskarrarekin topo egin nuen. Mendeku baten historia zen: Literaturaren jenio ulertezin batek bere hondamendiaren errudunak banan banan akabatzen ditu. Xehetasun asko, gehiegi esango nuke, erabiltzen du Elle Abadie-ren gorputzak jaso zituen torturak azaltzeko. Handik gutxira, existitzen ez den software bati esker, Urquinaonako dorreko segurtasun kamerak baliogabetu zituen, eta ikusi gabe sartu zen argitaletxera. Pentsa dezakezuen bezala, editorea hamabosgarren solairutik salto egitera behartzen du, bere PC-n suizidio ohar zikin bat inprobisatu aurretik.

Suizidio-oharrak testu-prozesadorean. Memoa izan behar da!

Kontakizuna, literaturan pobrea eta xehetasunetan zorrotza da. Zorrotzegia. Irakurleari, editorea hiltzeko aukeratutako eguna eta ordua ere ematen dizkio. Eta jakina, irakurlea epailea, polizia edo, ni bezala,

ikertzailea, izan daiteke.

Tira, bat nator kontraera triste hau irakurri bezain laster, mossoei blogaren sarrerari esteka bat bidali behar niela, eta telebistaren aurrean Montalbanoren bigarren denboraldia lasai ikusten gelditu behar nuela. Bai. Baina Andreuren ausardiak, Lemaitre-arena saiatzen, garaipen irrika piztu zidan. Zergatik oparitu poliziei nirea baino ez zen meritu hori? Barre egiteko gogoia sentitu nuen. Estanda egin arte barre egingo nuke han bertan, nire hurrengo eleberriaren argudioa Arnauk idatzi zuela ospatzen. Baina Fuentes leihotik zintzilik zegoen, eta arma bat eskuetan zuen zoro batek etengabe begiratzen zidan. Nirea altzatu eta osen agindu nion:

— Utz ditzagun txorakeriak. Askatu kakazahar hori eta alde egin.

Nire harridurarako, obeditu egin zuen. Sinesgogor begiratu zidan, eta pipa jaitsi zuen galdetu baino lehen.

— Orduan, banoa? Ez nauzu atxilotu behar?

Ezin izan nion barreari eutsi.

—Atxilotu? Baina, nor naizela uste duzu? Ospa hemendik, beste batzuk arduratuko dira zutaz.

Eta joan egin zen. Pistola gorde, eta atearen bidea hartu zuen burumakur. Baina hara heltzean, jiratu egin zen eta bere ahotsak hormetako paper zikinaren eta nire burezurreko barruko paraten kontra estanda egin zuen.

—Zortea duzu, Fuentes. Soler tipo ona da. Orain, ea nola azaltzen diozun bere eskuizkribua eta Esteban Belem arteko negozio hori.

Eta isiltasuna itzuli zen. Isiltasun beltz bat, Andreuren pausoen oihartzuna hutsean galtzen ziren bitartean. Isiltasun zerratua eta traidorea.

— Zer gertatzen da nire originalarekin, Fuentes?

Berehala laburtu nuen elkarrengandik bereizten gintuen espazioa. Hortzak estutzen, ahalegin guztiak egin nituen nire barrutik hazten zen gorrotoari eusteko.

Eusten saiatu nintzen, bai.

Ez nuen lortu.

—Utzi txorakeriak eta lagundu jaisten hemendik— Agureak ez zidan begiratzen hitz egiten zuen bitartean. Beldurrak, edo lotsak, ez zion uzten.

— Ipurdia izoztuta daukat.

— Zer gertatzen da nire eleberriarekin? Belem-en sinadurarekin argitaratuko duzue? Hori al da, kabroi hori?

— Ez, gizona, ez horixe.

Ez zen Fuentes hitz egiten zuena. Izua zen. Egiari zion beldurra, nire Sig Sauer-i ziona bezain handia.

Izuak gezurretan ziharduen haren ahotik.

Bultza egin nion. Horixe bultzatu nuela! Bultza egin nion, eta leihora joan nintzen haren azken hegaladiaz gozatzerara. Bultza egin nion, eta algara huts batek bete zuen gela. Editorea erail nuen. Baina Arnau izango zen erruduna.

Pistola gorde, irribarre itzela nire aurpegian marraztu, eta buelta egin nuen alde egiteko asmoz. Orduan, aterabidea oztopatzen zuten poliziekin topo egin nuen.

Hau da nire adierazpena. Hau sinatuko dut, hau epaileari esango diot eta



hau peritu eta lekukoen gainetik mantenduko dut. Egia delako.

Fuentes hil dut, bai. Sei mosso dira lekuko. Baina ez nuen Elle Abadie hil. Ez dut koartadarik, noski. Tipo bakartia naiz, liburuak eta bulegoko katu zaharra besterik ez dituen. Baina zin dagizuet Arnau izan zela. Berdin zait zenbat lekukok dioten egun horietan ikusi zutela Valdemorillo de Enmedio-n, haren Aste Beltzan. Joan eta itzuli ahal izan zen, beste bat bere ordeztu bidali, edo berak antolatu ahal izan zituen jardunaldi horiek koartada bat bilatzeko. Ez da hain zaila. Gaur egun, edonork egiten du nobela beltzaren jaialdi bat. Mundu guztiak daki hori.

Era berean, ez du axola adituek argitaletxetik igaro izanaren ebidentziarik ez aurkitzea. Bila dezatela berriro. Ezinezkoa da bulegoan eman zuen denboran ezer ez ukitzea. Ez dut gogoratzen eskularruak zeramatzan ala ez, baina berarekin hitz egin nuen han bertan, Fuentes hiltzen saiatu zen bulego horretan. Eta nik saihestu egin nuen. Ni naiz ona. Beno, ba, gero lehiotik bota nuen, egia da. Amorruek itsutu egin ninduen, Esteban Belemekin antolatutako lapurketaz ohartarazi ninduen. Baina hiltzailea bera da.

Zorte handia izan zuen gizona, birus informatiko batek eraikinaren segurtasun-sistema justu gau horretan apurtu zuelako, hori egia da.

Ipuina dago. Ipuina primerako aitorpen bat da. Ez esan existitzen ez dela, inoiz ez dela bere blogean egon, eta ez dagoela arrastorik bere ordenagailu pertsonalean. Nik irakurri nuen. Bestela, nola ezagutuko nituen bere asmoak? Ezinezkoa da sarean IP zehatz batek bakarrik ikus dezakeen fitxategi bat jartzea, ezta?

Dena halabeharraren kontua izan da. Nire izar gaiztoarena. Izan ere, oso

zorte txarra da dei anonimo batek agure bat leiho batetik zintzilik dagoela salatzea, eta pasma agertzea bultza egiten diodan mementuan bertan. Eta, gainera, ez dadila Arnaurekin pasiloan gurutzatu. Jaitsi beharrean igo zen, edo zer?

Minutu bat. Minutu bat lehenago iritsi izan bazinate, piparekin apuntatzen ikusiko zenuten.

Ze putada! Egia esa, plan bat dirudi. Xehetasunik txikieneraino kalkulaturako plan bat.

Zorte txarra. Oso zorte txarra.

Bestela...

Arnau ez da hain azkarra.

Ezta?

*Javier Diez Carmona Bilbon jaio zen 1969.ean. Ekonomilari ikasketak eginda, Balmasedan bizi da. Gaztelaniaz ehun ipuin sari baino gehiago irabazi du; euskeraz, berriz, beste bospasei. Gazteentzako bi eleberri argitaratu ditu eta beste bi gehiago thriller eta beltz motakoak: Correr a ciegas (Metora) eta E-King (Erein).*

# Tenis klubean

Mari Joxe Azurtza Sorrondagi

Makil goxoa atera zuen patrikatik. Puruak erretzez utzi zuenetik hori zuen urduritasunari kosk egiteko bere era. Biriketako gaitzen bat hartuko zuela azaldu zion zehatz-mehatz bere sendagileak eta covid19a inguruan izanik, “eskerrak utzi nuen” esan izan zion behin baino gehiagotan bere buruari etxealdia izan genuen garaian.

Aurrean flotatzen ari zen gorpuari isilean begira ari zitzaion. Tennis klubeko igerilekua oraindik ere itxia zuten osasun neurriengatik, baina igerileku garbitzailea bertaratu zenean aurkitu omen zuen gizon gaztea ur gainean. Hasieran, irrist egin eta erori zelakoan, bira eman nahi izan omen zion, ateratzeko, nahiz eta bira emandakoan ikusitako zurbiltasunagatik ohartu zen hura hilik zela eta udaltzaingoari deitu omen zion berehala.

Bere azalpena irakurtzen ari zen ikerlaria bi eskuekin, makil goxoa hortzekin eutsiz. Azkar egin zuten udaltzainek lana gero. Arnasa sakon hartu zuen. Pena zen osasun-alarma egoera horretan horrelako gazte lerdien batek bizia galdu izana, nahikoa ez bazuten Covid19ak harekin eramandako hildako kopurua, orain beste bat gehiago zerrendarako. Morturako.

Bakarrik bizi zen gaztea, Luke izenekoa. Haren lehen triatloia egin nahi zuela eta baimena eman omen zioten tennis klubean goizean goiz

igerileku txikian entrenatzeko. Ordainetan tenisa ordezkatzeko eskatu zioten. Horregatik omen zuen giltza jokoa harekin, entrenatzera sar zedin. Klubeko kudeatzaileak eman zituen azalpenok, lirain eta pertxenta mantentzen zen hirurogei bat urtetako andreak. Hiztuna zen gero eta heriotza horrek erraietaraino sumindu zuela nabari zitekeen begi zuloetan zituen negar markengatik, bere kontakizuna egitean zindo mantenduagatik.

Bitxia zen gero etxeratu gintuzten garai horretan gazte hura uretan aurkitu izana, burutik soinera jantzita. Zapatak ere kentzeko betarik gabe. Ilea orraztu zuen eta burua ezker-eskuin mugitu, ezezkoaren keinuan. Arraroa zen dena, zalantzan jartzekoa behintzat bai.

Langile fina omen zen Luke, hogeita lau urtetako idazkari prestua, denari aurre egiteko gai zena. Bi urte zeramatzan klubean lanean eta ez zuen inoiz erantzun txarrik eman edo inor iraindu. Haizeteak teilatua ostu zuenean ere, bera izan omen zen soseguari eutsi eta eginbidea finkatu zuena lehen une nahasgarriotan. Faltan botako omen zuten.

Igeri egiten jakinik, harrigarria zen gero uretan hil izana. Uraren tenperatura 32°Ctako zen, beraz, ezin zitekeen hipotermiak jota hil. Era berean, irrist egin, uretara erori eta arropak urez puztu arren, lurra igerilekuaren bi aldetan ukitzen zuen: are gehiago, iskin batean ere ez zitzaion paparretik gora pasako.

Edo ondoezak eman zion, edo mozkor zetorren. Edo hil egin zuten.

Forentseak argitu beharko zuen kontua.

Biharamunean, makil goxo eskukada patrikan sartu eta bezperan izandako bihozkadari segika, bigarren idazkariarekin hitz egin nahi izan zuen Harritokietak. Bi idazkariak etsai sutsuak zirela susmoa hartu zuen,

ez bazuen ere horrelakorik inork baieztatu galdeketa bakarrean ere. Igerilekuan zenean, zeharka entzun ahal izan zuen “hil egin da” esan ziola zuzendaritzako batek kudeatzaileari eta hark “hobe horrela” erantzun ziola. Hasperen egin zuen. Hor bazen norbaitek onartu nahi ez zuen zerbait, ezkutuan gorde nahi zutena behintzat.

Lide deitzen zen bigarren idazkaria eta Luke eta berak elkarrekin hautsi zutenean etsairik sutsuena bilakatu zitzaiola onartu zion Harritokieta detektibeari. Gizon horrek bezainbesteko mina ez ziola beste inork eragin esan eta negar estuan hasi zen andrea. Zintzurra estutu zion une batez negar zotinak. Maiteminak jota zegoela onartu zion berehala, ez zuela bere maitasuna isilpean gorde nahi luzaroago, ez zuela merezi dagoeneko. Negar egin nahi zuela. Erruki ziola bai Lukeri, bai bere buruari ere. Orduan bai ez zuela inoiz berreskuratu ahal izango bere maitea. Sudurra zintzatu eta masailak garbitutakoan, bere onera itzuli zen Lide eta “hobe horrela” misteriotsua bota zuen, kudeatzailearen hitz berberak. Zer esan nahi izan zuten biek? Harritokietak begi zorrotzekin begiratu zion Lideri. “Zer esan nahi izan duzu?” galdetu zion. Iluntasuna etorri zitzaion begiradara, aurretik zuen aurpegi gupidagarria aldatuz. Begirada urrunean galdu zitzaion, barruan zeukan hura esan ala ez esan zalantza argia islatzen zitzaiola.

“Zurumuruak, besterik ez” erantzun zion ahozpera. Harritokietak isiltasunari egin zion leku, batzuetan, isilunea hitz egiteko gune bilakatzen zela jakinda. “Gauza bat erakutsi nahi dizut ordenagailuan” esan eta pantailara gerturatzeko keinua egin zion. “Ikusi erosketa hauek eta ikusi orain merkatuan zenbat balio duten benetan”. Zifra denak puztuak zeuden. Gero beste kontu berezi batzuk erakutsi zizkion. “Hauek denak berak

aurkitu zituen eta kalkulu taula egin zuen. Hemengo norbait zinegotziarekin iruzurrean eta diru-lapurketan ari dela zurrumurrura aspaldikoa da eta berak, kontu batzuk aurkitu zituen eta kudeatzailea informatu zuen. Erabaki txarra izan zen, hura asaldatu egin zitzaiolako, denen aurrean gainera, hementxe pasilloan. Gaur arte”.

Zinegotzia nor zen ez zekiela esan zion Lidek, ezta zinegotzirik zegoen nahastuta ere. Hori pasilloan izan zuten ika-mika gogorrean entzundakoa izan omen zen eta orduan inork ez ulertuagatik, hilketa hura zer ote zen denen ahotan omen zebilen. Harritokietak makil goxoa eta bere apunte kuaderno hartu eta Lideren aldameneko aulkian eseri zen, hark inprimatutako kontu zerrenda eskuetan.

“Zer da hau? Lanetik bota naute!” egin zuen garrasi Lidek. “A! Eta ezer egiteko baimena kendu didate!”. Laneko sarea moztu zioten. Harritokietak eskuetan zituen orri apurrak ziren inprimatu ahal izan zituzten froga eskasak. Whatsappean hiru mezu jaso zituen berehala. “Ez duzu sinistuko, baina langile denak bota gaituzte. Baina... beste zerbait esan didate. Itxoin. Interneta irekiko dut. Egunkaria. Ikusi albiste hau”.

“Atzoko Donostiako gazte baten heriotza ustelkeria kasu baten ondorioa izan liteke”. Harritokietak eskuetan zituen orriak baina askoz ere datu gehiago ikusi zituen egunkarian, gehiago zeudela ziotelarik. “Azkenean, datuak egunkaritarara bidali zituen gure Lukek...” adierazi zuen Lidek eta negar isilari ekin zion. Eskerrak eman eta jaiki egin zen Harritokieta, Lidek bere dolua bakarrik egin behar zuela ohartuta.

Oso baldarra iruditzen ari zitzaion dena, bai lanetik botatzea langile denak, bai egunkarian salaketa argia zela irakurtzea. Forentsearen deia jaso

zuen, inondik inora espero ez zuena. “Bihotzekoak hil da”. Eskua ahora eramane zuen, azkazalei hozka eginez. Pentsakor zenean automatikoki egiten zuen keinua zen. Heriotza naturala izan zuen, beraz, ezin zitekeen azpijokorik edo hilketatik ondorioztatu. Zergatik esan zuten “hobe horrela” baina. Forentseak berriz deitu zion. “Barkatu, ez dizut dena esan. Bihotzekoak hil da, baina lau maratoi korritu izan balitu bezalako ahalegina egin ondoren. Batzuetan bihotzari une labur batez gehiegi eskatzen zaionean arteriak zabaldu egiten dira eta gizon honek hori du. Bihotza ere ahul zuen kongenitoki, ez zuen jakingo. Bihotzekoak emanda hil da”. Eskegi egin zuen eskerrik asko lehorra esanez.

“Hobe horrela, hobe horrela”. Esaldi horrek birak ematen zizkion buruan. Komisaldegira itzultzeko garaia zuela konturatu zen.

Lukeren izenean salaketarik jaso ote zuten bilatu zuen agiritegian, baina ez zuen ezer aurkitu. Ustelkeria kasu bategatik ez zuten hilko, hori ez zitzaion arrazoi nahiko iruditzen Harritokietari. Horretarako nahikoa zuten Luke kaleratzea, egun hartan bertan gainontzeko langileekin egin zuten moduan. Hor bazen beste zerbait.

Lideri deitu zion: kaleratua zegoen eta maitea galdua. Une horretan ez zuen ezer gehiago galtzekorik eta ez ziola egia osoa sumatzen zuen. Eliza batean egin zuten hitzordua, Harritokietak tarteka egiten zuen eran eta Lidek onartu egin zuen gonbita. Arratsaldeko hiruretan irekia zegoen, hutsik edo pertsona bakarrarekin izaten zen. Biak agertu ziren musukoarekin, legeak agindu bezala eta betaurreko ilunekin: nor zen nor igartzea zaila izango zuen beste inork, mendiko buru-berokia jartzearen parekoa zuten ia.

“Ez didazu egia osoa esan” bota zion eseri zirenean, segundorik xahutzeke Harritokietak andre gazteari. Sagariora begira hitz egin zuen Harrik, otoitzean bailitzan. Lidek lurrera, damutua balego bezala. “Zerbait gertatu zen tenis klubean, ustelkeria bera baina larriagoa, ezta?”. Buruarekin baietz egin zuen Lidek. “Iaz, hamar bat hurrek biriketako gaixotasunen bat garatu zutela kexa jaso zuen tenisak. Kexa ez zen formala izan, informala baizik. Lukek, egun batez, nirekin izan zuen beroaldi baten harira ur lagin bat jaso zuen eta bere kabuz laborategi pribatu batera eramanean zuen haren etxeko igerilekuaren ur kalitatea neurtu nahi zuela aitzakiapean. Bere patrikatik ordaindu zuen ikerketa hura. Niri tenisean gauzak ondo egiten zirela ziurtatu nahi zidan. Igerilekua duen etxaldean bizi zenez, denek irentsi zuten amua, hau da, ura bere etxekoa zela. Ez nuen ikerketaren emaitzaren berri inoiz izan, Lukek horren betilun begiratu zidan hartu zuen laginaren inguruan zirikatuz galdetu nionean, ezen argi ikusi nuela okerren bat zegoela eta hobe nuela gai horretan ez sakondu. Loa galdu zuen, hamar kilo argaldu zituen eta negarrez pasatzen zuela gaua aipatu zidan behin. Igerilekuan sartzeari utzi zion eta itsasoan hasi zen igeri, nahiz eta klubaren aurrean itxurakeria mantentzeko, goizean goiz agertzen zen... gimnasioan sartuz zuzenean eta ez igerilekuan. Informalki kexatu ziren guraso horien haurretako bat hil egin zen. Lukek egun horretan botaka pasa zuen eguna eta azkenean etxera bidali zuten, osatzeko. Osatu zenean, indarberritua itzuli ordez, aurreko gizonaren itzala itzuli zen, gaixo zegoen, ahituta, abailduta eta zama handi bat bazeraman bezala. Lanean hutsegiteak egiten hasi zen, kontuak aldrebes egiten eta nik ondoren denak zuzentzen nizkion. Maitemindua nengoen. Dena emango nukeen bere alde. Etxezulo bihurtu zen, arima gabea. Sasoi gabea.



Triatloia egitearen ideiarekin jarraitzen zuen, inork gutxik uste genuen, aldiz, bukatuko zuenik. “Zergatik ez duzu igeri egiten?” galdetu nion behin. Igerilekura begiratu eta “pozoituta dago” esan zidan. Ez nekien benetan ari zen, ala paranoiak hartua zegoen, horren narras zebilen azkenaldian ez nekiela zer sinistu. Ni ere tuntuna, sinetsi izan banio...”. Negar isilean hasi zen Lide. Kontakizunari jarraitu zion, ordea. “Hau da konta diezazukedana, Harri, dena gandu eran dakit, benetan argi ez dakit ezer, Hobe horrela.” Eskua sorbalдан jarri eta negarrean lagun egin zion Harrik eta ondoren, eskertu, aitaren egin eta elizaren soseguan utzi zuen Lide.

Hobe horrela esamoldearen esanahia ulertu zuen kasu honetan. “Maite dugun pertsona sufritzen ikustea baino, hilda, hobeto egongo dela amesteko joera dugu” arrazoitu zion bere buruari Harrik.

Makil goxoa ahoan sartu zuen milizkatzeko, musukoa zorroan sartutakoan. Ustelkeria kasua bera baino larriagoa zen osasun salaketa. Guraso horien kexa irakurri beharra zuen eta bihotzera joatea erabaki zuen, klubaren kudeatzailearengana zuzenean. Ester Lekuonak bi urte eskas zeraman kluba kudeatzen eta laguntzeko prest agertu zuen bere burua. Kexa erakutsi zion Harritokietari eta biharamunean bertan egindako ur kalitatearen neurketa. Neurri guztiek ur kalitatea ona zela adierazi zuten. Bai biharamunekoek, bai hilabete osokoek ere. Kanpoko auditoretza ere ekarri zutela erakutsi zion: honek ur kalitatea egokia zela berretsi zuen.

Denak zirudien zuzen. “Luke inoiz kontu honekin etorri al zitzazun?” galdetu zion lotsagabe Harrik. “Bai, harekin hitz egin nuen eta biok eskuartean nituen datuak kontrastatu genituen. Dena ondo zegoela ziurtatu nion baina bera fidagaitz zen, ez zela horrela azpimarratu zidan.

Auditoretza egingo nuela hitz emandakoan lasaitu zen, baina auditoretzak analisiak egokiak zirela berrestean ezetz esan zidan, manipulaturia zegoela dena. Ordurako, ez nion horrenbeste sinistu, baldartu egin zen, kaskartu, buru-oreka galdu izan balu bezala zen” azaldu zuen. Harrik ez zuen ulertzen nolatan esan zion langile fina zela bezperan eta hura aurpegiatu zion. “Zer esan behar dut ba hil berri zaidan langile bati buruz? Munduko onena dela eta gainera, hasieran hala izan zen, egunero. Ez dut gezurrik esan, azkenaldia azpimarratu ordez, hasierako gizona gogoratu nahi izan nuen atzo. Hobe horrela, hobe oroitzapen ona nabarmentzea” argitu zion Harri. “Nolatan bota duzu langileria osoa?” bota zion amaieran. “Ez, hura errore informatikoa izan zen, denei barkamena eskatu diet gaur eta denak ditut soldatapean berriz, lehengo baldintza berdinetan” desenkusatu zuen bere burua Esterrek. Ba a zer bromatara errore informatiko hura!

Esandakoak entzundakoan, buelta eman eta joan aurretik azken kezka agertu zion Harrik Esterri. “Nork egiten ditu uraren neurketa horiek?” “Gure mantenduko teknikariak”. Um, Luke flotatzen topatu zuen pertsona berak. “Eta auditoretza enpresa, nork aholkatu zuen?”. “Teknikariak berak”. Eskua airera altxatuz agurtu zuen Ester detektibeak.

Auditoretza enpresa ikertzeko agindua eman zuen komisaldegian eta berehala esan zioten berak susmatzen zuena: jabea, tenis klubeko teknikariaren lehengusua zela. Lukek lagina eraman zuen konpainiarekin hitz egin zuen Harritokietak eta haiek Lukek eskatutako neurketa erakutsi zioten: datuek garbi erakusten zuten igerilekuko ura toxikoa izan zela neurketa garai horietan. Nola frogatu zezakeen ezer, ordea? Forentseari erakutsi behar zizkion datuok.

Forentseak, datuok ikustean, Harrik erraietan zerabilena berretsi zion.

“Orain ulertzen dut, hori da” buruarekin baietz eta baietz zioen forentseak. Nahiz eta Luke bihotzekoak hil, berez, bihotza azkartu zion toxikoa irentsi zuelako izan zela azaldu zion eta ez berak hasieran agertu bezala ahalegin handiegia egin zuela. Orduan ulertzen zuela bihotzekoak eman eta aurkitu zuen sustantziaren arteko lotura. Lehenago ez ziola garrantzirik eman, baina ur kalitatearen neurketa hark begiak zabaldu zizkiola eta barkatzeko lehenago ez konturatu izana. Musukoaren barruan irribarre zabala eskaini zion eskerronez Telmo forentseari eta eskua airean astinduz agurtu zuen Harrik.

Galder teknikaria, hiltzailea ote zen?

Komisaldegira joan eta Galderri bertaratzeko eskatu zion eta azkar asko agertu zen teknikaria. Zalantza batzuk argitzearren Luke nola eta noiz aurkitu zuen galdetu zion Harrik. Galderrek gogo onez erantzun zituen galderak, berriz ere, lehen egunean emandako azalpenak hitzez-hitz errepikatuz. Koherenteki hitz egiten zuen, baina bazen zentzurik ez zuen zerbait: Luke igerilekuan goitik behera arroparekin aurkitu izana, bainujantzian aurkitu ordez. Galderrek sorbaldak igo zituen eta elkarrizketan lehen aldiz zer erantzun ezinik isilik gelditu zen. Hortxe zegoen gakoa: ez zuen gertakizunen alderdi hau prestatua. Urduri jartzen hasi zen, alde egin nahi zuela esanez eta joateko garaia zuela.

“Zer eskatu zizun, Galder?” moztu zuen Harritokietak, “edo hobe esanda, zer eskatu zenion berari?”. Galderrek leloarena egin zuen “ez dakit zeri buruz ari zaren”. “Galder, ur kalitatea ez zela ona badakigu eta zu zara arduraduna”. Harritokieta erasora joan zen. “Gurasoek kexa egin zutenean...” Galderrek moztu egin zuen “auditoretza pasa genuen”, “bai, zure lehengusuak gidatutako enpresarena, ez dakit hori sinesgarria den

guretzat” jarraitu zuen Harrik lasaikiro “eta gero haur horietako bat hil zen; ez zuten igerilekuarekin loturarik egin ahal izan, baina guk biok badakigu bazuela, ezta?”. “Haur batzuk besteek baino birika ahulagoak dituzte eta kloroa kaltebera zaie, Lukek haurtzarotik bihotza oker zuen eran”. Tate! Harrapatua.

“Gutako inork ez du esan bihotza jaiotzetik ahul zuenik Lukek, zuk, antza, bazenekien, ezta, Galder?”. Ardia artzain zakurrak nola, horrela sentitu zuen bere burua bazterreratua Galderrek. Eskuak buru gainera eramane zituen. “Nik ustelkeria salatzeke eskatu nion, ezin nuelako jasan zinegotziaren lagun taldeak nola zebiltzan jekeak balira bezala, musutruk, ni haien menekotzat tratatzen.. igerilekura zetozenean. Ez ziren dutxatzen, zarataka ibiltzen ziren, zabar eta trakets. Axolakabe eta gainera, gure zergetatik eta lan-izerditik zurruputzen. Eta Lukek egingo zuela esan zidan, baina beste zerbaiten truke: nik ur kalitatearen benetako datuak ematearen truke, haurrek osasuna eta bizitza luzea merezi zutelako. Une bateko errorea zela esan nion, baina berak zorrotz eta zurren erantzun zidan, errorerik egitean igerilekua ixteko eskatzeko ausardia izan behar nuela, hori zela nire bikaintasuna eta profesionaltasuna. Nik ez nuen horrela ikusi, nire lotsakizuna izango zela baizik eta ezbai horretan, haserre beroak burua estutu eta goizeko ongietorri zukuan pozoia sartu nion, egun batez aitortu baitzidan bihotzarekin kili-kolo zebilela”.

“Ez ote da hobeto egun bateko lotsakizuna gure buruaren betiko galera baino!” ihardetsi zion Harrik “eta bereziki, besteen bizitzeko aukera moztea baino”. Galderrek sorbaldak igo zituen lelo eran eta “hobe horrela; Luke ez zen pozik bizi dagoeneko” “eta hori zuk erabaki duzu!” epaitu zuen Harritokietak.

Galdeketa gelatik atera, musukoa kendu eta makil goxoari amorruz egin zion kosk. Zentzugabea zen. Miserablea giza miseria. Bere gauzak hartu eta ilusentiko urre eta diamante gorri kolorea ikustera joan zen, bihotz estututa, tortila otartekoa eskuetan. “Maitia, bazatoz?” senarra zuen deika ilun betea zenerako. Senarra eta haurrak zituen etxean zain eta Luke gogoan, dagoeneko bere burua defendatu ezin zuen gizon gaztea bularrean, aurrera egiteko kemena erregutu zion Jainkoari “beste egun bat gehiago, bat gehiago behintzat”.

*Mari Joxe Azurtza Sorrondegi donostiarra ingeniari informatikoa da eta Donostiako udaletxeko Informatika atalean dihardu. Idaztea gogoko duenez, ipuin lehiaketetan aurkezten ditu bere nire istorioak eta tarteka sariak irabazi izan ditu. Helburu du, istorioak asmatzearekin gozatzeaz gain, euskaraz idaztea.*

# Desagerpena Bilbon

Oskar Azkona García

Aupa kaixo, zer moduz, ondo espero dut, ni hementxe, Ignacio Urquiaga Ertzaintzako komisarioa nauzue, ia lau hamarkadatan zehar lan ibilbide emankor, aberasgarri, nekagarri eta lipar on nahiz latz dezentez zipriztindutakoa osatutakoa euskal poliziaren egituran, erretiroa hartu ahal izateko tenore desiratuaren aiduru destinoa Bilbo kosmopolitan daukadana azken urteotan, eta zera, jarraian kontatuko dizuedan istorio bitxia aurten bertan jazotakoa da, beharbada sinetsiko ez duzuen arren, batez ere denon bizimodua inarrosi eta zeharo irauli duen Koronabirusaren izurria dela-eta pairatu ditugun itxialdi eta alarma egoeren ondorioz orain dela hilabete apurretara arte arrunta zena guztiz irrealia begitantzen zaigulako, baina tira, goazen harira bada, protagonista nagusiak Ian McKinsey jauna eta Alice McLogan andrea dira, hirurogeita zazpi eta hirurogeita sei urteko alargunak hurrenez hurren, Eskoziako populatuena den Glasgow hiriko bizilagunak izatez, Europa iparraldeko jatorria dutenen artean ohikotzat joko genituzkeen ezaugarri fisiko tipikoez hornitutakoak, hots, behi esnea

bezain azal zuria, oreztez jositakoa duten bi metro inguruko kankailu aleak, kaskarrean bilo urri urdindua gizonak eta ile mataza hitsa behinola gorritzat andreak, eta gauza da, sorterritik aisialdi bidaian hegazkinez partitu ostean hegoalderantz hegaldatu, eta gure Loiuko aireportu zuri aratzean lurreratu zirela, urtarrilaren hamarrean goizeko bederatziak eta hamahiruan hain zuzen, eguraldi zimel hozkirriarekin baina ateri zegoela, abioitik jaitsi eta uhal garraiatzaitetik maletak atzitutakoan Usoa esaten zaion eraikuntzako irteera gainditu eta Bilborantz jo zuten artez taxi batean, itsasadarraren eskuinaldeko Campo Volantin Pasealekuaren hogeita bigarren zenbakian kokatuta dagoen Conde Duque hiru izardun hotel apainean aterpe hartzeko, han baitzuten erreserba aldeztu aurretik eginda, horrenbestez harrera guneko izapideak egindakoa banakako bi ohez atondutako logela bat esleitu zieten eraikineko bigarren solairuan, leihoez ur ertzeko ibiltokira ematen zutela, zeren bost gau igaro behar zituzten bertan apopilo, Bizkaiko hiriburua eta aldiriak begiztatzeko lau egun aski izango zirela iritzita, hortaz ilbeltzaren hamabosteko goizeko hamarretan zeukaten etxera itzultzeko hegaldia, eta horrela bada, iritsi ziren egunean fardelak hoteleko lotokian lagata Uriortu eta Gaztainondoak kaleetatik patxadaz ibili eta Artxanda mendirako funikular gorria probatu zuten, aise eginez uri gaineko behatoki paregaberrainoko igoera aldapatsua errail gaineko garraiobide berezian, batere nekerik gabe, hango lorategien artean paseatzeko eta Bilboren ikuspegi bikainaz gozatzeko, biharamunean, urtarrilaren 11ko goizean hain justu, zinezko bisita punturik ospetsuenetik abiarazteko, beraz suertatu zen aro eguzkitsua profitatuz hoteletik irten eta txangoari ekin zioten, Zubizuri deritzon diseinuzko oinezkoentzako pasabide labainkorra tentuz zeharkatu eta Ibaizabaleko

uren higidurari ezkeraldetik lotuz oinez osatu zuten urtez urte euskal sosez bapo garaztatutako titaniozko Guggenheim Museo yankirainoko tartea, hango urmael artifizialera txanpon batzuk bota, Puppy zakur erraldoi lorehun eseria agurtu, erretratu parrasta atera, eta harribitxi arkitektonikoaren barruko areto zabaletan galtzeko artelan mordoa miresten, eta halaber, eguerdian jatetxe batean arin bazkaldu ondotik Euskadi Plaza iragan eta Arte Ederren Museo dotorea ikustera joan ziren, izan ere erretiratu berriak ziren biak, erakunde publiko bateko legelaria izandakoa gizonetzkoa eta nerabeentzako ikastetxe publiko bateko irakasle ohia andrazkoa, eta nonbait bazuten sortzaile trebeen kultur lanak balioesteko mailarik, eta gero, handik aterata Errekalde Zumarkaleko, On Diego Lopez Haroko Kale Nagusiko eta Plaza Eliptikoko espaloi artean jendetsuak zapaldu zituzten uria amiñi bat ezagutu eta erosketaren bat egiteko, eta hurrengo goizean, urtarrilaren 12an diot, euri zaparradak aterrunekin tartekatzen zirela, zilbot puztudun gizonkote kirolzaleak Glasgowko Celtic oinbaloi klub kutunaren koloreetako elastiko zuri-berde marraduna soinean eta bisera garezurrean harro zeramatzala San Mames futbol zelai berrira eta Athletic Club Museora gerturatu ziren bisita gidatuez gozatzeko, eta molde berean, turismo gida margotsuetan ageri diren gomendioei jaramon eginez, hotzik ez baina hozbero apala eta zirimiria zegoen izotzilaren 13an Zazpi Kale estu zahar berriztatuetan murgildu ziren uros, ezen bidaiari dirudun astitsuei bozkario joria opatzeko beren-beregi apailatutako auzunea da berau hondarraldian, kopau-erretilu goxoz gainezka dauden tabernetako salmahaiak, askotariko jatetxeak eta oroigarri xebreak eskuratzeko abaguneak nonahi aurkitu ahal dituztela, edo topa zitzaketela behintzat planetako herrialde gehientsuenetan



hedatutako COVID-19 birus malapartatuaren zoritxarreko eraso gogorraren aitzinetik, egia biribila baita udal agintariek kostala baino kostala munduko maparen erdigunean ezarri gura duten hogeita batgarren mendeko Bilbo distiratsuan ez zaiola inolaz ere turistak dakarren larruazalaren zurtasunari edo belztasunari erreparatzen, dakarren katanarruaren gizentasun neurriari baizik, horixe izanik funtsezko aldagaia ailegatu berriari ongietorria edo gaizkietorria emango zaion ebazterakoan, baina beno, segi dezadan adarretatik jo gabe, kontua da Unamuno Plazaren alboko Euskal Museoan ikusgai egoten diren harri eta traste zahar zenbatezinak azkar ikuskatu ondoren kalez kale ibili zirela errari, argazkiak ateratzen, dendetan ikusmiran aritzeko sartu-irtenak egiten, eta ardandegi nahiz saltokietako beharginekin berba egiteko ahaleginak egiten, baita beste bezero batzuekin ere, ingeles doinu ederrean hizkuntza hartan moldatzen zirenekin eta ozta-ozta gaztelania herrenean gainerakoekin, eta esan ei zutenaren arabera orain dela bi mila urte agitu zen Erromatar Inperioaren inbasio saiakera gorabehera bizirauteko itzelezko balentria egiteko gai izan zen antigoaleko Saltus Vasconum edo Basque Country delakoaren hondarren bila zebiltzan, eskoziarren arbaso piktoen irudizko kidetasun keinu gisa, hortaz historia gertaerei eta kultur auziei buruzko itaun zorrotzak luzatu ahala bertakoen ahoetan latinaren aurreko euskal mintzaira arraroaren ahaireak entzun gura zituzten, gizonezkoak kaiertxo bat eta bolaluma bat zeuzkala eskuan beti oharrak idazteko prest, baina salbuespenak salbuespen gaztelaniaren inposatze tematiarekin egingo zuten tupust noski, are gehiago auzoak urteotan jasandako turistifikazio eta gentrifikazio prozesu bortitzen poderioz jatorrizko negozio-jabe andanak ospa egin edo erretreta hartu ondoren haien hutsunea atzerritik heldutako

pertsonek bete dutela aintzat hartuta, baina diodan legez, jazoera historikoen, kultur adierazpen mota ezberdinen eta euskal erroen gaineko jakin-minaz gain nabarmentzekoa da, politikaren esparru korapilatsura etorrira, azken boladan kontinenteko zenbait lurralde kutsatzen ari den sukar independentzia-zaleak menderatuta zegoela bikotea, ezen edandako ardo kopa nahiz garagardo pitxer kopurua hazten zen heinean gero eta alaiago dantzatzen zituzten mingainak, ozen iragarriz jaioterrian Nicola Sturgeon lehen ministro andreak lehenbailehen egin asmo duen bigarren independentziarako erreferendumean abertzaleak gailenduko direla ezbairik gabe, aberri maitea laster libreza izango dela eta britainiar pepelerdo hantustekak ipurdietan ostikadak emanez egotziko dituztela behin betiko, eta zentzu berean Euskal Herriaren burujabetasunerantz jotzeko xedez abian leudekeen urrats zehatzen berri jaso nahi zuten, hemengo Eusko Jaurlaritzako agintari otzanek Madrilgoak suminduko dituen zaratarik txikerrena eragiteari dagokionez erakusten duten nagikeriaz ezjakin, eta orobat udaberrian Bartzelonara bidaiatzeko intentzio tinkoa azaldu zuten, Kataluniako lurretan benetan pil-pilean dagoen prozesu askatzaile kitzikagarri eta dirudienez hondartuaren argi-ilunak hurbiletik ezagutzeko gogoz, antza denez Txina urrunetik arribatu den heldeak egitasmoa zapuztuko ziela barrundatzeke, eta bestalde, Game of Thrones batek daki nongo telesailaren erruz lurbirako leku anitzetan entzutetsu bilakatu diren Gaztelugatxeko eta Bermeo herriko bazterrak arakatuz egun-pasa zoragarria egiteko plana zuten urtarrilaren 14an, izena emanda baitzeuden hotelean bertan ostatu hartutakoentzat propio antolatutako autobus turistikoan, baina aitzitik, emakumearen ezusteko desagerpena zela kausa ez ziren abiatu, eta diodan bezala, informazio hori guztia

zegoen Eduardo Gonzalez ofizial ikertzaileak ordenagailuz taxututako eta eskuz sinatutako txosten txukunean jasota, zenbait iruzkin ene uztakoak diren arren, arreta osoz miatu nuena leitzeko betaurrekoak sudur trenkadaren gainean bermatuta eta bulegoko mahaiaren parean jesarrita, eta xehetasunak garunean mamurtu eta egituratu bitartean idazkian ageri ziren ortografia eta joskera akats barkaezin mingarriekin estonatu, edo areago arras amorratu nintzen, izan ere badakigu ertzain bihurtzeko interesik izan lezaketen gazteak erakartzearren lantzean behin deitzen diren lan eskaintza publikoetan ez dela sekulako adimen edo prestakuntza mailarik eskatzen, horrela egingo balitz ziurrenik lanpostuak betetzeke geratuko liritekeelako, baina aizue, zerbitzari publiko izan nahi duten hautagaiak eskolatuak izan daitezen eta zuzen izkiria dezaten galdatzea ez zait larregizkoa iruditzen, eta bestela zuzentzaile ortografikoaz baliatzeko argitasunik ukan liteke behinik behin, baina tira, zer egingo diogu bada, eskuartean dudan kontakizunera bueltatuz, gehienbat McKinsey jaunak emandako azalpen eskas nahasiak ziren irizpenaren oinarria, Sestao herrian jaiotako Gonzalez ofiziala han eta hemen galderak egiten ibilia bazen ere turista ipartarren pausoak berrosatu eta aztarnak batu guran, aparteko arrakastarik gabe zirudienez, eta azken finean egitate ukaezina zen McLogan andrearen lorratza urtarrilaren 13ko iluntzean Botxoko Zazpi

Kale animatuetan ezabatu zela bat-batean, zeren erdietsitako datuak aintzakotzat hartuz gero, besteak beste Plaza Barriko Urdina, Erreka, Sorginzulo eta Zuga tabernetan mokadu, arno nahiz biera batzuk irentsita, gehiegi apika, alderrai mugitu zen bikotea barrideko karriketari barna, eta halako batean McKinsey malderra Done Jakue Katedralaren aurreko enparantzan esnatu zen ustekabea, ilunabarreko zortziak edo bederatziak


aldera, ilargi larua horma eta teilatuen arteko zero oskarbian dirdaitsu ageri zela jada, Bizuete Kafetegiko zerbitzariak lekorean paratzen dituzten aulkietako batean kuzkurtuta kuluxkada atsegina eginda agidanez, egundoko buruko minaz eta ahoa lehor, McLogan andrearen arrastorik inon ez zegoela, eta jakina, adiskide min, amorante edo dena delakoaren faltarekin kezkatu eta izutu zen morroia, oinez zihoazen polizia bi begietsita haiengana amildu zen artega, arrapaladan argipenak ematen saiatu zen baina tutik ulertzen ez zioten udaltzain unformatuek udaletxeraino garraiatu behar izan zuten patruila-autoan, kiriok harrotuta zituen gizonaren ingelesezko jarioa entelegatu eta era egokian artatzeko gaitasuna izango zuen lankideren bat kausitzeko itxaropen ez baikorregiez, azkenean ertzain-etxera ekarri zuten tipoa, delitu aztarrenak egonda eskumena gurea zelakoan, eta ordutik erabateko misterio ubela zen emakume eskoziarraren kokagunea, bere sakelako telefonora hots eginda itzalita zegoela egiaztatu baikenuen, eta gizasemeak aienatua zuen burmuinetik arratsalde hartako orenetan gertatutako oro, zulo beltz sakon batek hartzen baitzuen denbora tarte hura bere gomutan, horrenbestez aukera guztiak zeuden irekita ene aburuz eta ezin zen ezer baztertu, oldozten nuen agian litxarrerero zitalen batek basaki jipoitu, poltsa ebatsi eta edonon botata utziko zuela turista gajo mozkortua, edo Europa ekialdeko nahiz Hegoamerikako etorkinez osatutako gaizkile talde bateko kideek bahituko zutela aurki dirua exijitzeko helburuaz, eta berebat ezin zen ehuneko ehunean saihestu Euskadi Ta Askatasuna (ETA) berpiztua edo Amnistia Ta Askatasuna (ATA) atal disidentea egotea pasadizoaren atzean, edo batek zekien, yihadismo erradikalaren guda santurako aldarriak itsututako mutil magrebtarren kuadrilla zoro baten posibilitatea ere ezin

zen alboratu, ala auskalo, arean bi eskoziarrak xalotasunez haien iritzi, gurari eta gorroto politikoak aditzera ematen ari zirenean turista edo hemengo egoiliar ingeles bat zegoen haiengandik hur, adierazpenak adituta irainduta sentitu, haserretu eta emakumearen desagerpenaren hobenduna zena, edo zergatik ez, bazitekeen genero indarkeria kasu bat egotea jazoeraren gibelean eta McKinsey gizontzarra plantak egiten jardutea, edozein kasutan hilotzik agertu ezean emaztekoa bizirik topatzeko igurikimena geneukan, baina zerbait argitu bitartean desagertzearen albistea isiltasun maindire lodi batez estaltzea deliberatu genuen, hau da, hedabideei inolako notiziarik helarazi barik iraungo genuen, eta ildo beretik McKinsey jaunari erregutu genion zuhurtziaz jokatzuz inori deus aipa ez ziezaion, ezta Eskoziako lagun edo senideei ere, horrela lasaiago gauzatu ahal izango baikenituen ikerketa lanak, kazetari muturluzeekin arazorik izan gabe eta gaiztaginak atezuan ipiniko zituen mugimenduen oihartzun barik, eta alafede Lakuako Segurtasuneko sailburu Estefania andrea informatuta ez eze ados zegoen, txit estimatzekoa zena zinez, baina kargudun hartaz gain Ertzaintzako ikerketa lantaldeko partaideok eta gutxi haborok zekiten balizko krimenaz, eta beraz lanari hainbat lerrotatik haztamuka ekin behar izan genion, neuk nondik hasi ez nekiela ene betiko informazio iturri direnengana jo nuen argi izpi eske, munta txikiko lapurreta edota droga salerosketa aferen karietara barkabera arituz eginak dizkiedan mesedeen truke han eta hemen belarriak zabalik datu baliotsuak lortzeko erne egoten diren gizajoengana alegia, uriko estoldak diren San Frantzisko, Abusu edo Errekaldeberri bezalako langile auzotegietan sakabanatuta ditudanak, eta era berean terrorismoaren aurkako estatu borrokaren hamarraldi latzetan harremana izandako La Salve Plazako

kasernako txapeloker agintedun batzuei laguntza eskatu nien diskrezioa gorde beharraren egokitasuna eta onurak azpimarratuz, nahiz eta jende oso fidagarritzat ez eduki, baina diodan legez ez nuen jarraitzeko moduko ildo garbirik ikusten, azken beltzean urteetan metatutako eskarmentu eta kontaktu denak erabili behar izan nituen misterio gaizto hura argitzen entseatzeko, morrosko eskoziar baldan errukarria hoteleko lotegian bakaturik genuela uneoro, galdeketetan nahiz horietatik at aurpegia esku ahurren artean babestuz aieneka ziharduela atsekabez mukuru, malko garratzei eutsi ezinik paperezko mukizapiak atzamarren artean, eta halako batean zorionez Begoñako Ama Birjinak, plater hegalarrietako estralurtarrek edo zer dakit nik zeinek esku bat bota zigun, kasualitatez deskubritu baikenituen alde zaharreko Askao kale meharreko “Bodeguita Cubana” izeneko taberna txikiraino gidatuko gintuzten zantzu argigarriak, izan ere agitu zen hango ugazaba karibetar tximatsuak limurtua zuela andre tuntuna Lorategiak kaleko taberna batean bakarrik zegoenean, gernua libratuz komunean berandutzen ari zen gizonaren zain, berarekin joateko bairatu eta negozio lokalaren gaineko etxebizitza ñimiñoaren barnean egunetan jalgi barik egon ziren biak besarkatuta, Bilbon bizitzen bi urte pasatxo zeramatzan hogeita hamasei urteko morroi beltzaran lirainarekin zozoki maitemindu baitzen adineko emakume zurbila itxuraz, kreditu txartelarekin Internet bidez egindako hamaika eragiketa, gastu eta transferentzia ezohikoak susmagarritzat jo zituzten emaztekoa bezero zuen banketxeako arduradunak, hari telefonoz deituta eta posta elektronikoa bidalita arraposturik jaso ez zutenez Police Scotland agentzia ohartarazi zuten, eta polizia erakundeen arteko nazioarteko elkarlana zela medio Guardia Zibilaren gatzigua iritsi zitzaigun instantetik puzzleko piezak

ahokatzen joan ginen bizkor, txartel operazioak agindu ziren ordenagailu eta mugikorraren kokapen zehatza finkatu ahal izan genuen, egunak zarratuta zeramatzan edaritegia zelatatu eta goiko estaian argia piztuta zegoela konturatu ginen, bata nahiz bestea Wladimir Gabiria zeritzon norbaiten izenean zeudela jakin genuen, hurrena bildutako ustezko frogak epaile zurrun bati erakutsita baimena lortu, inguruko karririk moztu eta zurezko zurubi pikoetan gora igorrita etxebizitza xumean sartu genituen esku-hartze berezietarako gure mutilak, beharrik atea indarrez eraitsitakoan anabasa hartan onik ediren zuten emakume txunditu lotsatua egongelako sofan ohelagun berriaren konpainian jesarrita, jarrera txeratsuz eta sexu saio kementsu amaigabeetan aritu ostean birrinduta zeudela biak, ia osoki biluzik doi-doi iztarteak tapatuta, egunak eta gauak laztan eta ferekatan emanda, andre musugorrituak irribarre maltzur bihurria zuela ezpainetan...

*Oskar Azkona Garcia Bilbon jaio zen 1972.ean eta egun Laudion bizi da. Zuzenbide ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Eusko Jaurlaritzan egiten du lan, lege aholkulari gisa. Hainbat literatur sari irabazi ditu; besteak beste, Lanbro Beltzarena 2015. urtean.*



BRUMA NEGRA    LANBRO BELTZA

Plentzia Beltza    Calibre .38

